

Ama zenaren gutunak

PATXI PERURENA

Ipuin honek aho batez bereganatu zuen Nafar Ateneoak eraturiko Lehen Ipuin Leihaketaren Aurreneko Saria, epaile José M. Satrustegui Jauna eta Jesus M. Lasagabaster Jauna izan zituelarik.

EGILEAREN EZINBESTEKO ARGITASUN BATZUK

Nornahik badaki, jakin, Fontes Linguae Vasconum aldizkariaren orrialdeok ez direla bitartekorik aproposenak gisa honetako litaratur lan bati argi eta oihartzun emateko; baina, bere bereizitasun linguistikoak direla medio, norbaitzuri komenigarri iruditu zaie ipuin honek hemen ere leku izan dezan.

Beraz, egin didaten proposamen honi ukorik ez egitekotan, ezinbesteko bihurtu zait argitasun batzu eman beharra. Deus baino lehen, zera esan beharko nuke, ondoko ipuin honetan euskara batuaz izkiriaturik ageri ez den guzia Goizuetako herri hizkera dela. Horretan egin ditut, behintzat, ahaleginak, transkribatzerakoan sinbologia linguistiko zorrotz eta zehatzik erabili izan ez badut ere. Oraintsu dela hogeiren bat urte inguru, ene haurtzarorik zoragarrienean, bizi izandako eta neure memoriaren hari zurietan gorde izandako hizkera da, ondoren kaxotx artean aurkituko duzun hau. Memoriak, ordea, maiz egiten du huts, eta honelakoetan gurasoak izan ditut bide zuzenaren erakusle eta gidari.

Bestalde, eta esan bezala haurtzaroko egunak gogoan, Goizuetako emakume hitzun eta argi haien hikako tratamendua ekarri nahi izan dut oroimenara, emakume lotsagabe (zentsurik benazkoenean, noski, lotsagabe) haien arteko erretolika bizia eta naturalaren, gauzak zapla muturrera botatzeko erraztasuna eta grazia parerik gabearen izpi batzu bederenik jasoaz, eta bide batez, Goizuetan sexuaren erabilerak izan duen bereizitasuna gaineratzen saiatuaz. Orain, ez jakin ene asmorik bete dudan. Dena den, hori bestek esan beharko du.

Ipuinaren egitura eta formari dagokionean ere, esan nahi nuke zerbait. Camilo Lizardi erretore jaunaren gutuna ezagutzen duenak, esan lezake haren gutunaren plagio hutsa direla ama zenaren gutunok. Eta, behar bada, ez luke bate-re arrazoi faltarik. Niri, buruhauste frango pasa ondoren, esan nahi nituenak

esateko eta esan nahi nituen bezala esateko, hauxe iruditu zitzaidan biderik errosoena, ipuinari sinesgarritasun eta bizitasun apur bat eman nahi izatekotan behintzat. Eta imajinazioak huts egin baldin badit, hainbat okerrago neure burua-
rentzat.

Bukatzeko, eta egitura eta estilo asuntua alde batera utziaz, zera esan nahi nuke baita, alegia, nostalgiaren inguruan garatzen dela ipuina, edo hala izan dela behintzat egilearen asmoa, eta, begiratzen den lekutik begiratu, nostalgia dela ipuinaren gai nagusia. Eta azkenean moraleja gisako zerbait somatzeko ere, ez dut uste, irakurleak behialako pikaro begiluzea izan beharko duenik. Izanez ere, herri koxkor honen hertsikeria eta gaitzik latzena, nostalgia eta tradizionalismo itsu batetik datozenak direla uste izan bait dut, ingurumaria behatzeko eta senditzeko ene gaitasun apurra izan dudanez geroztik.

Gehitxo luzatzen ari naiz bai. Oraingoz, aski izanen dut. Oso tristea bait da, bestek eginen ez duen bildurrez, autokritika egin behar hau. Tristeia izateaz gain, hagitz itsuski ematen du gainera, inor modu urrikalgarri honetan ari dela ikusteak.

Leitzan, 1987.eko Ilbeltzak 11

Ama zenaren gutunak

Eskeintza:

*Ene sorterriko emakume guziei, nola hikako tratamendua
hala sexuarena, inon gutxitan bezalako naturaltasunez
menderik mende gorde izan dutelako.*

Santa Fe, 1979.eko Abenduak 21.

Ene aspaldiko Philine maitea!

Oraindik ez dun hitaz ahaztu Amiel zahar hau. Ez. Ezta ahaztuko ere goiko beste horrek argia ematen dion bitartean. Oroitzen al haiz gonak altxatu

nizkinalako haserretu hintzeneko hartaz. "Ama, gonak altxatu ttit Amielek". Esan bahunan esan hunan, aztalak ederki berotuta joan behar izan ninan etxera; noquieroko latzak hartu nizkinan denbora llabur askian. Egia esatea nahi badun, geroztik ez nionan batere kariñorik izandu zuen amari. Ez. Ezta batere. Hik ba al dakin nola sartzan ziren arbazta mutur haiek hezurretaraino! Beste hogeit egunean eduki nizkinan oraindik markak eh! txurmio ingurutik hasita belauntxokoraino!.

Honez gero esan izanen dion heure buruari: zer gertatzen ote zaio gure Amiel zaharrari hainbeste urteren buruan berriro niri pañadizo hauek kondatzen hasteko? Zer martingala ote dabilki buruan? Orain ere bere atarramentu horietakoren bat izanen du? Edo, ea bihotzeko minen batek jo duen gizajoa?. Ez bada, etzan pentsa, ez dun holako deusengatik; oraindik, nolabait esateko, maite haunat, baina, arrosoia besterik dun; berehala azalduko dinat gainera:

Lehengo batean, hor argitaratzen duzuen Fontes Linguae Vasconum edo delako aldizkari horretan, zera irakurri ninan, gure herriko hizkeraz lanen bat egiten ari omen haizanela, baina, zoritxarrez oso dokumentu idatzi gutxi aurkitu omen dunela. Bada, arrazoi horixe dela kausa ari natzain gutun hau idazten, inondik ahalbatean nire laguntza eskaini nahiz. Badinat hemen, Paula delako batek gure ama zenari bidalitako gutun mordo bat, eta hauexek azaldu nahi nizkinake, gutxi gorabehera, hire lan horretarako interesik baduten edo, ikus dezanan.

Gutunak, denak, eskribitu, hor~~ko~~ hizkera garbian eskribituak ditun; behar bada, ez ordea, hik nahiko hunaken bezain txukun eta argiro, baina, tira... Gaur edo bihar interesik izanen bahun, herorrek ikus hezazken; pakete ttiki batean bilduta, gerttu gerttu, korreoz bidaliko nizkinake, hala nahi izanez gero, eta aitaren semeren egin orduko hortxe hitunake etxean.

Esan bezala, gutunak, Paulak eskribituak ditun denak. Paula delako hau, gure ama zenaren lagun izugarria izan omen hunan gazte denboran, eta bere senarraren politika asuntoren bat zela medio, azkeneko gerratean, ospa egin omen zinan, herria utzita Europa aldera. Gutunetan ageri denez, Europa gehientsuena korritu izanen zinan. Oso abertzaleak omen hitunan biak, nola Paula hala Julian, honela bait zinan izena senarrak. Nik, egia esan, ez netinan ezagutu; nola ezagutuko netinan bada, ni zutik hastera orduko herritik aldeginak omen hitunan eta.

Senarra, itzal haundiko gizona omen hunan. Harekin ez omen hunan gero berriketan ibiltzerik izaten! Kuidau gero pausorik oker eman! Zintzo eta zuzen ibili behar izaten omen zinan harekin. Baina, abertzalea bazen ere, ez omen zinan beste goiko horretan sinesten. "Nere fede bakarra, biarre euzkik euna argittuko dun espeantza da" esan omen zionan behin herriko erretore jaunari, honek, ea elizara zergatik joaten ez zen galde egin zionean.

Emaztea, berriz, gure ama zenari gutun hauek eskribitu zizkiona, matraka samarra omen hunan gaztetan. "Matxorra" dietzen omen ziotenan, marimutil horietakoa zelako edo, eta hala izateko itxura hobeak zetin, izan ere, gutunetan erabiltzen duen mintzamoldean behinipein. Hona nola hasten den lahenbiziko gutuna, Montpellier-en Lorailaren 5ean datatua dagoena:

“Urte pranko irao ttun gue erri matte ori utzi nula, biño, oandik ez nun aztu itaz. Mira ikarria eiñ niñan erria utzita zakur galdun modun onontz torri giñenen. Iru urte iñ ttiñau emen, Montpellier-en, ta oaiñ Itali aldeko martxa artuko te dun gabiltzan... Ementxe neska, makik biño ukerro. Onezkeo aplakaturxe iziñ ttun orko futaakok. Izaneze, bayunan ordua, sekulan izatekotan!. Aze kozina utziko zutena, ez?. Mundu txar ontan lau eun bizi bar, ta ola ibilli barra latxa dun geo! Au markaz fuerakoa dun, neska! Azindake, azindake... gu aiñbeste iziñ ttun beñtzat!. Aztutzea obe, neska, oloko kontuk.

Bero izuarrik itten ttiñ emen azken aldi ontan; txorik iltzeko moukok; ta eztiñ gañea euldik kanbitzeko itxurik nabari. Or baneo, laxter niñunake Errekaundiko zuipera, ielan gisan. Orduko sasoa baleo bai. Ordun bai ibilltzen giñuzenan, Klaudiokin da... Ez al aiz oroitzen ittolarrika asi zen eun artan ze apurok kusi ginittun. Geoztik, beiñ biño geiotan pentsatu izandu inat, eta, gu ikaazteatik, beagana yotetik eiñ tziñan dena zerri ark; parrukiano politta geore! Nitaz gustatzen men unan gañea ordun, geo, andik urte batzun burura ala attortu izandu zeanen. Leku eerren zabillean gizajoa, aentxentzako neonan ba ni orduntxe! Gañea, ...”

Dena hemen azaltzeko, gutuna oso luzea dun: alojamendua bilatzeko gorriak nola ikusi zituzten; Frantzi aldera ihes egindako euskaldun askorekin nola topo egin zuten; gerrate garaian gutunik eskribitzerik nola izan ez zuen, eta holako gauzak esaten dizkin; azkenean, hiru urte luzetan inongo aztarrenik eman gabe egon delako barkazio eskatuz. Beste bat ere badun leku beretik, Montpellier-etik bidalitakoa, eta Klaudio delako mutil batekin izandako lehenbiziko amodio benturak eta azainak kondatzen dizkin honetan. Baina, denak ezin aiputuko dizkinat hemen, hain leku estuan, eta datetan ageri diren hiri izen desberdinetatik bat bakarrik aukeratuko dinat muestra gisara. Orain datorren hau Italitik eskribitzen din, Veronatik hain zuzen ere:

“Bi illabete pasaxek dittun, oaiñ urrengo karta eskribittu niñela, ta ordun Prantzitik bezela gaur Italittik ari nun. Guk, olexe ibilli barko diñau ill arte guzin, batetik bestera ijiton mundun. —Eta aurreraxeago honela segitzen din—. Nola aipatu niñan aurrekoan, Klaudio nitaz seko enamoratua zeolakoa, ba, etzanela pentsa, ez unan ortan pukatu izandu nere Klaudiokiko asunto guzia. Esan bear diñat dena, yaketa lengon kontatzen asi nitzen.

Beste beiñ zea eskatu zeanen, ia larrua emain tenin! Mutillan gokazioa unan guzia, gokazioa zenez! Zea unan ordun gue itxen, atsolarra; ta amari launtzea torria unan Klaudio. Niri, berriz, kina botilla baten billa yoteko aindu zeanen attack. Orduko lezea bezela illundua unan, ta baezpare launduko ziala Klaudiok. Bono, baietz esan nionan, bakarrik biño naio nula.

Ala, abittu giñuzenan eliz ataria barrena bik kontu kontari. Asieran ongi, beti bezalatsu. Biño, aurrea eiñ aala, asi niñunan zerbette nabaitzen. Klaudion itzeitteko modun ierri niñan alako intentizio zakarren bat; baita, bertan urratuko ote niñun billurra burutik pasare. Alako baten alleetu gittun errotarin itxetik gottixioko estarta illun artara, ta, zapa! bi besotatik artuta ez neon ba estutzen pareta kontrara!

Iñen al diñau beste ortan? —esan tzeanen. Ni lenbizi arrunt ikaatuta geldittu

niñunan, oillande gaxtea oillar zarran azpin bezela. Urrena, ozkaka asi zitzianen, lenbizi lepondon barrena ta geo bular aldera yetsi unan.

Ze pasatzen tzik Klaudio, erotu iñ al aiz eo! —esan neonan nik noizpetteko baten.

Erotu, gustora aski ao i, urdangori! —konteestu zeanen berak, zakur amorratu baten gisako boz zakar ta aserre batez.

Eia esain diñat, alde batetik gustoa, ta bestetik, ikara sentitzen niñan momentu artan; izuarrizko ikara; gorputz guzia daldarika neukanan. Geoztik, badiñat aitzea, larrua basatiki yotzen denen gue barrengo zoko illunetan azitzen den izua uxatzen dela, ta ala dun, azken aldi ontan bazemazkiñat lau bat illabete larruik yo gabe, ta nabaitzen diñat nere barrenen ikarrizko izua formatzen ai dela. Ba, atea itzan kontukik, gaur ainbestekoa deneako, ordun zenbatekoa iziün tzen nere barrengo izua ta ikara, oandik sekulan larruik proatu gabea nitzela yakiñik.

Soñeko ñabar bat niñen eun artan, bei beitan zeukanat oandik, kunpleañose-tan tia Mirentxuk erregelatua. Esku batekin goittu, ta ozkan artu ziñan azpildu-ratik, goien eusteko, ta, ni, antxe, izter guzik aerin nittula, illan modun, anak xabal xabal inta. Andik belexe, iñoiz ez bezeleko zea bat sumatu niñan bee alde ortan, ola, oso oso urrutiko itturri batetik ur garbi ta purua sortuko balitz bezela. Nik etzekiñat zertzen ora neska, geoztik ez diñat sekulan alakoik ezautu izandu!

Geroxio, idin adarra biño gorroko zea batek ukittu ziñan, oaiñ ya zimeldu-xetzen asia don nere xulo txar au. Zer tzen ora neska! Oaindak alakoik!... Burni gurike ez din ark bezela beotzen pertsonik neska! Ora unan sukarra, ora! Artaz aparte ez nun deustaz akoortzen, izaneze, lllollon yota seko gelditzen dena biño ezauera gutxiokin geldittu bainiñunan sutan tzeon adaki motz ora nere barrenak urratzen asi zenen. Biño, mundun deusekin konpaatzeik ez don parapeto ora ez-tiñat aztu, beti tortzen tzian burura, Julianekin beste ortan aitzen naizen bakoi-tzen. Aittuko balitt, jesu ama, ez diñat pentsature in nai!”

Gutun hau, hemen azaldu dinadana halako bi badun luze, eta beste gauza askoren artean zera eskatzen zion gure ama zenari, jainkoagatik ere ez esateko gero inori, berak konfiantza osoz kondatzen dizkion gauza isileko hauek. Eta, esana bete ere, xuxen demonio bete zinan gureak; giltzapean eduki zizkinan gutun hauek denak, koarto iluneko kutxatilan erlikia bezala gordeak. Eskerrak, hil zenean, bere amantal beltzaren patrikeran gelditu zen urre koloreko giltza eder hura nire eskuetan suertatu zen, bestela, gaur jainkoak bestek ez zinan jakinen gutunok non zeuden.

Beste bost gehiago ere baditun Veronan fetxatuak daudenak, baina, ez dinatte beste munduko gauzarik aipatzen: nola Europa guziko merkataritzak indar haundia duen; nola, museo eta guzi, arte klase askoren topaleku den, eta holako gauzak, batez ere, garai hartako Veronako ekonomi eta kultur mugimendua azalduaz. Hurrengo, jada, Vienatik eskribitzen din; gainera, hiri, linguista haienez, asko interesatuko zain agian. Honatx, hauxe dun:

“Nere Maria mattea, yakiñen bauna zeñekin aittua naizen atzokoan izketan, arrittuta geldittuko intzenake. Pelipekin, neska; gue gaztetako nobio arekintxe. An nenbillenan Ring-eko bulebarretan barrena ardi galdun modun, ta, itxeruntzen norkin topo iñen, ta Pelipekin ez diñat ba eiñ topo! Orare gerratekon

iesi torria men dun. Bost urte zean pasa men ttin, Leipzig-en, Alemanin, meatiei baten lignito ateatzen. Ale, gizaseme bikaña zeon oandik; amiakatxok pasako liñake ratotxoat beakin, nik dakiten leku baten, mandire zuri batzun arten zaldalek irabiziz; bai gutora aski pasakore!

Gauz asko berrittu giñenan, eta primaeran txorik biño poziko eondu niñunan beakin; nere belarrrik atseñaldi eerra artu zitenan denbo gutxi askin; baita aspalditxon aittu gabe zeuzkan itz eta esamolde eer askik goon arture, artu zizkiñan, onoko señora onek: Ipurdiko koka beotuko iñat geo, majiña bat aldiz esana gue amona gaxok; edo: ni zutik asita geore i apuzka ibilltzen intzenan oandik; edo: ora unan, ora, emakume zerrenda, kuixidade gutxiko ta zaldarra, iñor bazen ta, amaikari aittua gue auzoko Felixangatik. Yakiña, ik itzetik ortzera erabilliko ttun oik, biño zenbat oloko esaldi eer ote neukan nik aittu gabe yon deneko dozenan bat urte ontan! Beste bate eldu zaian burura derrepente: labana mandikaño sartu zionan seittun, ta, zerria seko geldittu bertan, euli baten odollik atea biño len; baita beste bate: neskak bixiketan ibilltzen ziñaten beti; aritz ostok, txuletak izate ittunan; añar lorea, arrosa; ardi kakalek, babarren gorrik; ta dena olaxe. Pelipek esan bezelexe zeuzkanat oandik belarrin esaldi guzik. Joo, zeñen gauz eerra den itz bat sentitzea! Itzak arrikoxkorak bezela dittun, iñork ez ttiñ estimatzen, biño, nik bazekiñat eerki arrikoxkor baten azpin zenbat xomorro babestenden, ta, baita, itz zirtzill baten azpin zenbat sentipen eta oroimen gordetzen den! Esanta ez unake siñistuko! Neetzako eztun itza biño misterio aundioko gauzik mundun. Nik, itz txar bat aitzea aski izate iñat askotan, eunak eta eunak itz orren inguruko pasaizoak eta oroitzapenak burutik ezin kenduz ibilltzeko. Onontz torri banitzen torri,..."

Ikusten dun, gutunak nola aurrera segitzen duen, baina, zati hau erakutsi nahi ninan batez ere, behar bada, hiri ere Paulari bezalatsu gertatuko zainalakoan; alegia, hitzak, hik ezagutu ditunan gauzarik ederrenak eta misteriotsuenak izanen direlakoan; eta deskuidoan hala ez balitz, ene barkaziorik damuzkoenak eskatzen dizkinat alde z aurretik, garizuma baino luzeago egiten ariko zainan gutun aspergarri hau irakurtzera behartzeagatik.

Gutun honen azken aldera zera esaten din Paulak, laster Nurember-era abiatzekotan direla, bere senarrari hango Museo Nazionalean lana eskaini omen diotelako edo. Eta hala izateko traza guziak bazetin, zeren hurrena datozen hamar gutunak Nuremberg-en datatuak bait daude. Honako hauxe dun hamarretatik lehenbizi bidalitakoa:

"Berrize emen eldu nun ba, neska, iri itz batzuk esanez pixkot lasaitzen te naizen. Ya iziñ diñat etsi ola geio. Badittun bost illabete pasek Nuremberg-era torri giñela; yon den abuztun asi unan lanen gure seño au, ta baakiñ, urte batzutan emen bearko diñau oaiñgoz. Noiz arte ez yakiñ; seuruaski, gue "Julliantxo" aspertu arte. Au bizi bear trixtea!. Etzekiñat non pukatzeko asmoa iziun dun gibelaundi zerri onek. Abertzalea men dun geo au, ala esate iñ, etzekiñat ze abertzale klase izan ditteken bere erritik geota urrutio ies diona. Zakurran ipurtzulo ko abertzalea eiñen dun au, azkenen, martxa ontan seitzen bado. Ijitok galdutako zakurra ematten diñ, anima salbota. Maiz aski esaten tzenat, noiz abittu bar te dun gue betiko ta guztizko txoko ortara, biño, ez alperrik, beti aldrebesko esplikazio bat emanta uzten nen ume aul baten gisan malko dariodala; ze in bar diñat

ba; trixtea dun esateare, biño, nearra iñez ta noiz beinka iri karta bat eskribittuz lasaitzen ttiñat barrenak pixkot. Etxeako bidea noiz artu bar dun galdegitten dioten bakoitzen Coulomb delako baten legea esplikatzen tzean; milla bider esplikatu zean onezkeo gauza bea, ta, eia esateko, eztiñat tutike enteintzen; biño, yake-ta buruz ikasi duan, azalduko iñat, ia ik buztanik arrapatzen dionan iñondik. Onoko ola esplikatzen tzean, bere izakeran adierazgarri propioak dien yakintsu keiñu batzuk eiñez:

Beira, ene Paulatxo laztana, bazen Angelume-n 1736. urten sortu zen Coulomb delako gizaseme bat, beste gauz askon arten fisikako lege bat atera zuna, ta geo mundu zabalaren barrena ezauna iziñ tzena gañea. Ba, lege unibertsal ori, gutxi gotti betti, onelatsu zen: "bi gorputzen arteko atrakzioa gutxittu egitten da beren arteko distantzia geittu aala". Nik asko sentitzen dut ene Paulatxo, biño, gaur bizi balitz karta bat bialiko nioke Coulomb zelako gizon ospetsu ari, bere lege famatu ori gezur utsa dela esanez; ezen ni gure erritik zenbat eta geio urrundu, ordun ta atrakzio geio sentitzen baitut erriaganako, ta ez gutxio Coulomb-ek zioen bezela; eta fisikoren izenik ere merezi etzuen gizaseme burugabe ark, ezin ukatuko liake niri, gu, ni eta nere erria, fiñean bi gorputz ttiki ez ganik.

Ez Paula, gezurra da lege ori, ta, pena zea da, yende askok siñistu itten ttula oandik oloko legek; ta barkatu esatea, biño, zuire gauz bera pasa zaizo. Distantziak edertu itten do edozeiñ gauzaganako maitasuna ta estimazioa, ta noski, baita erri batenganakoare. Zu oaiñ atzera errira itzulita, seuru naiz zazpigarren urteako arraso nazkatuko ziñakela. Baita nire eh! ez pentsa zu bakarrik. Zazpi urte biño geio ez luke iñork bizi bar leku beren. Goieneze zazpi. Ez al zaizu lumero politta iduitzen zazpia? esate bateako, Coulomb-i zazpi bizkarreko bate besten gañen ematteko? Ez al...

Hemen nabari dun ederki, nabari denez, Juliantxok zernolako errespetoz eta delikadezaz hitzegiten zuen; ezen eroak ere bai baitzekin hizkera arrunt batean zuzenbidez "zazpi ostia" jarri behar zirela hor goian "zazpi bizkarreko" jarri diren lekuan. Bestalde, ez dinat uste, gure ama zena Mariak ere, konprenituko zuenik Coulomb-en zorioneko lege horrenik; zail samarra iruditzen zaidan bizi guzia bere familia aurrera nola atera beste kezkarik izan ez zuen emakume batentzako; bai, zail samarra bai.

Alemaniatik igorritako hamar gutun hauen ondotik datorrenak PRAGA jartzen din, holaxe, nabari nabarian gainera, letra haundi beltz batzutan. Gutun honetan, asmahala guzik esaten zizkion senarrari Paulak, beste inon ez bezala; bai gupida haundirik gabe esan ere! Irakurtzan irakurri, honako pasarte hau:

"...Nee senar maarikatu onek, berrize, ipurtzoloño beteta utzi nen, neska. Azkenaldi ontan artzen nettinan txorin beia biño ttikioko pastilla ttar ttikittiki batzuk, biño, ez alperrik, berrize zaia bezela azia zeon, neska, onoko gerriz gottiko zorro zar au. Aure guri, emakumeri tokatu bar! Ez gittun mundun suprittu gabe bizitzeko yayok orraatik!. Oso piura txarra zeukanat, Maria; umea itteko bette betten neon; emendik illabete biño len ortxe torriko dun, ploxt!. Kusiko baitunake nere beizulok, ta, tripa zar au, zanbonba bezela aizatua, parra iñen unake, bazekiñat seuru. Zeiñek esan, gizon txar baten beleno zikiñ orrek emakumea ola izorratu bar dunik! Leno, baakin, battiñat bi, motiko motz bat ta neskatua, zeñ biño zeñ eerrok. Yayotzekon melokotoi pote baten sartzeko moukok it-

tunan kasik, biño, endemas ankan gañen ibilltzen asi artekon nere bular gaxok eerki zupatu zizkitenan, bien aala bike. Aretzea bezelaxe ase ta gizendu ittunan, ortxe, urte terdiñ buruako edo. Ta, bi aski eztiela, iruarrena oaiñ, to!

Berrize famili izateko geldittu nitzela kontuatu nitzen bizin pronto, bertan illen niñen nee gizon buztanaundi zerri au; ara! eia esateiñat, alaxeko errabia eman tzeanen. Ustez andregixontzat yotxen giñenan gaztetan, akoortzen al aiz; ba, toki eerren andregixona izateko! Ekusi eiñ bear unake onen basakeria! Bere bizi guzin lotuta eondutako zezena ematten diñ, bei susara aul onen gañen. Beiñ biño geiotan esaten tzenat:

Julian, gaur eztuu oso eun seurua iziün ee! -. Biño, ez alperrik.

Pastilla oikin etzo iñoloko kuido bearrik andrea! - esanta antxe uzten nen ez zeruko ta ez lurreko. Ixillik utzi? Beharko utzi ixillik! Ik eiñ tzin ba goor oneri! Tarraje onekoa dun ta geore!. Lertuko balitz eunen baten sikira, pakea benik iziün niken! Urde...

Bere senarraz hain zakarki mintzatzea, alde batera, harritzekoa dun, hori bazekinat, baina, beste aldera, berriz, Julian hain zintzo eta zorrotza zela jakinik, gure ama zenari noizean behin holako gutunen bat eskribituz lasaituko zizkinan barrenak, seguraski, Paulak ere, berak aurreko gutunen batean ongi aski aitortzen duen bezala; ea nola lasai zezazken bestela, ardi galdua baino bakarra-go sentituko zen Bohemiaren erdialdeko paraje triste eta hotz hartan.

Baditun beste hogeiren bat gutun Pragatik bertatik eskribituak -nonbait, gustatu egin zitzaionan Juliani hiri zahar mitiko hura-, eta, behar bada, Paularen bizitzako aldirik tristeena eta ilunena azaltzen dutenak gainera. Hona, gehiegi luzatu gabe, non dunan pasarte llabur bat:

“...Atzo iñularren, Sternberg Palazioan kusi nittunak kusita, eztiñat geio mundu biribill ontan bizitzeko goik sentitzen bate; kusi eiñ bar unake ango artearen eerra, kusi! Niri, ora kusita, beste mundu bateako bidek urratzen asitzeko grina sartu zitizianen biotzan erdi erdiño; biño iziñ; iziñ deus eiñ; ta iziñak, gau illunen maldan betti tortzen tzien arri aundi aik bezelaxe kolpatzen diñ nee gorputz aul ta mixeable au. Ara! eia esateiñat: ola bizitzekotan, naio iñat, bitik baten, emen bizi biño or ill”.

Holako pasarteak arrapazka ditun, baina, ez haunat tristatu nai gehiago, ene bihotzeko Philine maitea, bai bait zekinat malko samurrekoa haizanela; gainera, mundu guziak ezagutzen zetin herriminaren gorabehera eta oinaze faltsu horiek, eta ezin hasiko naun ni orain berritik hamabira kondatzen. Ezta pentsatu ere!

Pragakoak utzi alde batera, eta Copenhaguetik igorria den aurreneko gutuna azalduko dinat jarraian, gure Paula gaizoa Europako zenbatsu lekutatik pasa zen ideia bat egin dezanan. Zenbat lekutan bizi izan zen esatera ez naun atrebitu, ezen, bizi, bizi esaten dena, inon ez bait hunan bizi izanen gaizoa.

Urtetan aurreratuxea izanen hunan Copenhague-ra orduko, hala iruditu zaidan ondoko gutun hau irakurtzerakoan. Ikus ezan nola ematen dion azkena gutunari, bere agurra eta guzi:

“...Eozin gauz esan, ta aztu itten tzian andik puxka batera; seko aztu gañea, batzu batzutan. Bai, memoria galtzen ai nun arraso; yoten ai zian burua, eunetik eunea nabaitzen diñat difeentzia. Bixtare pranko nabartzen asia

zeukanat; ya ez nun gauza yostortzari aria sartzekore; ta, gue seño onek, be-
rriz, antiajuk yarri biño lepo autsi naio diñ, zaar itxura geio artzen omen dela-
ta antiajukin. Etzekiñat, beste alde artara yoten ganen yarri barko ttiñau; eia
esan, emendik aurrea, arako bixaje ohea zeukanau ta.

Oandik eztiñat esan noski, zea, bi illabetez klinikan euki notela. Bai nes-
ka, giltzurdiñetako zea txar oneatik. Alako txarranpi gisako bat sumatzen
niñan goputz guzitik. Izaneze, enun bate arritzen, beti enpon gauden ta, gi-
zentzen yarritako zerria biño ukerro. Gere buriri kaso pixkot iñen bagenio,
akaso... Ioltsu iziin diñ bai ontazkeo, kaso eiñ eo ez eiñ; nee gaitz txar onekin
yon barra iziun nun bai ni azkenen beste alde artarare.

Ortxe eondu gittun neska, uetik altxatzekore gauz ez gala. Doi doien gor-
putzan lege pizar oitxek ittea yekitzen niñunan, kaka ta pixa ittea, neska, ta
oike iziñ eiñ askotan. Zer te da zarrerria motellek! Aur yayo ta aur biurtu, ez
ziñan ez, alperrik esaten aiñbeste bider, gue amona zena gaxok. Esateiñat ba
nola gauden: ementxe neska, beste mundura beira yarrik gauden, gaitzak yota-
ko aberea putren karraxi soñuk aitzen ttunen biño ukerro ta trixteo.

Urrenarte, gaurkon ez nun geiorako gauza, beste baten bearkeo diñ. Esku-
miñak Felixianari; enteatu niñunan alaba espoostu biño len ezkondu zitzila;
bai, esate iñat bai nik, ankarteko erbi txar onek eztula nolanai barkatzen”.

Esposatu baino lehen ezkondu zeneko horrekin, zera esan nahi din, esta-
duan ezkondu zela, haurdun, alegia, orain esaten duzuen bezala. Oslotik bi-
dalitako beste birekin bukatzen dun, Paulak gure ama zenari eskribitu ziz-
kion gutunen saila. Hala ere, azken bi hauek ez dinat deus interesgarririk ai-
patzen, eta horrez gainera, idazkera oso bihurri eta ulerkaitzeko eskuizkri-
buak ditun; badakin, zaharreriak zer ekartzen dion edozeini ere. Hala eta
gutziz ere, badun oraindik beste bat, erdaraz dagoena, Julianek sinatzen due-
na, eta Paularen heriotzaren berri ematen duena. Hona non dunan pasarte
bat, ahal izan dudun modurik erosoenean nik neuk euskaratua:

“Badakit ene emazte laztana zure lagun haundia zena, Maria, eta hau ez
bezalako gutunen bidez izaten zenutela elkarren berri. Bada, inork baino ba-
rrendikago senditzen dut nik, zuri hau esan beharra, baina, hurrengo gutuna
zerura zuzendu beharko diozu, Maria; han izanen dela uste bait dut honez ge-
ro bere arima garbia aingeru zurien hegapean; bere gorputz ederra, hemen lur-
rean, zizareek eta beste hamaika mila xomorro misterioitsuk zerekin asea izan
dezaten utziko badu ere.

Bart arratsean itxi zituen bere bi begi eder bezain amoltsuak behin betiko,
eta jada ez dugu inork jakinen zer gordetzen duen bere betazal uhelen atzekal-
dean. Oraindik ezin dut sinistu hil denik ere, hil, esaten dena, hil, deus hiltzen
ez bada ere. Begiratu dut bere aurpegi leun eta xuria behin eta berritan, baina,
ez, ez dute bere begi ederrek gehiago zabaldu nahi, aspertu egin dira nonbait,
mundu zikin honetako gorrotoa, elkarrezinikusia eta faltsokeria mesuraga-
beaz. Pena bakarra dut, Maria, bere begi nabar ederrak lurrak jan beharrak
izatea; bai, lurrak jan beharrak izatea, bai!...”

Eta gutunak aurrera segitzen din -erdaraz jakina- gero eta tristura ilunago
batean murgilduaz. Paula zenaren rekordatorioa ere hementxe daukan, nahi

izanez gero, bere senarrak azken gutun horrekin batera gure ama zenari bidalia. Emakume dotorea izanen hunan gaztetan, oraindik era nabari din hori, hil aurrean ateratako erretrato dotore honetan.

Bart arratsean -esaten din senarrak- itxi zituela begiak behin betiko, eta gutuna Ilbeltzaren 7an fetxatua denez, argi zegon Errege Egun gauean hil izanen zela Paula, European barrena hainbeste sofritu zuen gure Paula gaixoa. Hortaz, gutunak, denak, gerrondo beretik hasita cincuentaizeis-era bitartekoak ditun, lehenbizikoa, esan bezala, Montpellier-en 1939.eko Lorailaren 5ean datatua, eta azkenekoa, berriz, Oslon 1956.eko Ilbeltzaren 7an, Errege biharamunean, hain zuzen.

Interesik izanen bahun, badakin non bizi naizen. Ez dun prezisamentean itsaso guzia zeharkatu beharrik. Aski ditun lau hitz, eta berehala bidaliko nizkinake. Bai pozik bidali ere! Ez nekinan, neska, horrelako lanetan aritzen bahintzenan ere. Harri eta zur eginda geratu nindunan hire izena zorioneko aldizkari horretan ikusi nuenean. Harrapazan! edozeinek esanen zinan orain dela hogeitabi urteko Philine ttiki hura gaur hizkuntzalari izanen zenik! Zeinek esan behar zinan! Niri pottottina ikusten utzi ez zidan neskato ttiki hura linguista alajaina! Eta, zer ariko, eta gure orduko hizkera aztertzen gainera! Bejondeinala neska! Pozten naun, bihotz bihotzetik esaten dinat, badakin ez dudala santa sekulan gogoko izan kunplimentutan ibiltzea.

Orain erakutsiko al lidanake xomorro txar hori? Entenditzen didan ez? Ez al lionake larru pittin bat emanen aspaldiko lagun zahar honi? Jakina, pentsatzen dinat, aukeran aukerakoekin nahikoan egonen haizenala; baina, niretzat ere pixkan bat gordeko dun ezta? Hor banengo, behintzat, saiatu gabe ez ninake utziko nik gaur ere; hire gorputz eder horrek oraindik nire laztan gozo batzuk ederki onartuko lizkinake, halaxe uste dinat. Dena den, zain ezan ongi gonapeko mototx gorrixka hori, honez gero hondrak ederki galduak izanen zetin baina... Edo, zeinek esan, auskalo, egunen batean Amiel zahar honetxek berak estrenatu beharra igoal?... Farra zeri egiten dion? Zergatik ez ba?

Beno, ez dinat gehiago luzatu nahi. Oso gustora hasi naun hiri gutun hau idazten Philine, eta bidenabar orduko pasadizo eder franko burura ekarri ere egin dinat, konforme! Baina, guzi hau nostalgia besterik ez dun azken batean. Eta, nostalgia, ez zekinat hik jakinen dunan, baina, egunen batean zorientsu izan garela pentsatzea dun; eta hori geure burua engainatzea besterik ez hunake. Nik ez zekinat zer den zoriona. Hik baldin badakin, zorionekoa hi!

Har ezan mosu gozo bat aspaldiko lagun zahar honen partetik. Har ezan bai mosu gozo bat, gure baratzako pareta gainean sortzen ziren arrosa gorri haien pareko ezpain eder horietan. Emaizkien goraintziak gure familiar guziei, eta Eguberriak ongi pasa. Zorionak denei! Ea noiz etortzen zareten Amerika alde honetara.

Amiel